BETIDANIK ETA BETIKO

LEIRE ERBITI IRISARRI
DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria
Zizur Txikiko San Fermin Ikastola

Ez da erraza izan bere bidea. Berrogeita hamar urte bete zituen egun berean bizitzako berririk txarrena eman zioten: minbizia zeukan. Hainbeste erre zuen Bixente hiltzean... Pena uxatzeko egiten zuen. Ez zen ohiko bizio bat. Betidanik hain argal izanda, hain ahul, medikuen ustetan itxaropen gutxi zeuden. Zer pentsatuko ote zuen bere alaba maiteak? Ama berriro ere arazo. Berriro ere poltsikoa astindu behar botikak erosteko. Izan ere, ile-apaintzaile batek ez du hainbeste irabazten, bere laguntza behar zuen. Eztula egitean odola ateratzen zitzaion. Hainbeste ahaleginekin josten zituen telazko zapiak egiteari utzi eta klinex sotilak erabiltzen hasi zen. Bi hilabete pasata ingresatu zuten, hain zegoen ahul. Erradioterapiarekin hainbeste denbora kiribiltzea kostatu zitzaion ilea erori zitzaion. Janaria irensteak tortura bat suposatzen zion. Gehiago argaldu eta duela mende bateko fosil bat zirudien. Bere masailak apaintzen zituen kolore gorrixka desagertu zen. Izara eta bere aurpegiaren artean ez zegoen desberdintasunik. Asko aspertzen zen, gelan bakarrik zegoen, telebistako kulebroiak lagun bakarrak zituen. Laster hilko zen. Mundu honetan ez zuen ezer ere geldiarazten. Auzoko Karmen arratsaldero etortzen zitzaion, betidanik izan zelako losintxari hutsa. Maitasun handiz lo egitera ere geratzen zen, baina bere enpresak erantzukizun handia eskatzen zion. Alaba, betidanik urrintzea, betidanik asmo handikoa, oso gutxitan joaten zen. Inoiz ez zen izan bere emozioak erakustekoa, sentsibilitatea agertzekoa. Hain zen hotza, hain zen lehiakorra. Horregatik harritu egin zitzaion bere larunbat goizeko bisita. Hain goiz etorria, honek zer edo zer nahiko du... pentsatu zuen. Jakin izan balu...

–Ama

–Esadazu.

–Haurdun geratu naiz.

Ez zuen espero, ez orain, ez gero, ez inoiz ere. Alaba ez zen inorekin bere bizitza santu osoan egon, beti hain isil, hain lasai, hain txintxo...hain... arduratsu. Inoiz ez zuen bere karrera prometagarria arriskuan jarri. Zergatik orain? Ez zion ezer leporatu, hain ondo ezagutzen zuen... Zeharo harroa zen, paumak bezala. Berarengana kontsolamendu bila joan zen, betidanik bilatu baitzuen besteen oniritzia. Besarkada handi bat eman zion, eta zoriondu zuen. Ez zion inoiz galdetu aitaren identitateari buruz. Iraia beti izan zen oso koldarra. Min fisikoari beldur handia zion. Beste modu batekoa balitz, seguru dago abortatu egingo zuela. Baina hala ere, haurra edukitzea erabaki zuen. Ama oso larrituta zebilen, bere lehenengo biloba ezagutu nahi zuen. Bizirik iraungo ote zuen, bada?

Honek motibatu zuen, nahigabe haurtxoa bere besoetan imajinatzen zuen. Nola da posible existitzen ez den norbait maitatzea? Iraiak aitortu zuenean 3 hilabete t'erdiz zegoen. Nolatan ez zen konturatu, bada? Badaki, bera hain argal egonda, guztiak lodi ikusi. Gehiago jatera behartu zuen bere burua, gelatik atera eta lorategian zehar paseoan ibiltzera, eguerdiko lozorroarekin lo-kuluxkatxo bat egitera. Bere ohiturak hobetzera. Guztiek nabaritu zuten bere hobekuntza, harrigarria bada ere, zertxobait loditu zen. Erraztasunez erakusten zuen bere ezkerreko masaileko orbana. Tinte gorriak laster alaitu zion aurpegia. Beste hiru hilabete pasata, bere alaba ginekologoarengana laguntzeko baimena eskuratu zuen. Haurtxoaren sexua oraingo horretan definituko zen: mutil bat. Izugarria da berri batek zure bizitza aldatzeko duen ahalmena. Sekulakoa da zure ikusmen angelua aldatu dezakeen zerbait edukitzea. Errotik zure motibazioari buelta ematea.

–Zer izen jarriko diozu?

–Ez dakit, aukeratu zuk, ama...–Bere alabarentzako ere zerbait larria izan zen. Berak bere senarra galdu zuen, baina Iraiak bere aita adin zail batean.

–Zer deritzozu...Asier?

–Asier? Gure ondoko Asier bezala?

–Ez!Zerbaiten hasiera izan daitekeelako...

–A, bai? Hori dela uste al duzu? Eta zehatz-mehatz zer, jakin badaiteke?

–Bizi berri batena...

–Batena izan beharko...

–Ez, nirearena ere bai. Eta zurearena, batik bat.

Alabak ez zion erantzun. Buelta eman eta joan zen. Hala ere, bere haurdunaldiak bien arteko harremana hobetu zuen, ama eta alaba zenbait kurtsotara elkarrekin joan zirelako, haurdunaldietan aplikatzeko teknikak ikastera.

Bitartean, kemen handiagoarekin saiatu zen bere tratamenduan. Bitaminak hartzen zituen orain ere. Hamalau pilula hartu behar zituen egunean zehar. Baina ez zitzaion inporta. Pilula bakoitza irensten zuen bitartean, Asierri emango zizkion besarkada guztiak imajinatzen zituen. Nolakoak izango ote ditu begiak? Familian hain adierazgarria den ezpain ondoko orbana izango ote du? Ezin zuen hainbeste denbora bera gabe jasan... Laster atera zen ospitaletik, laster berregin zuen bere bizitza. Bajaldian jarraitzen zuen bitartean galtzeta egiten jarduten zuen eguna. Paparoak, txamarrak, txanoak, burukoak, gorroak, bururdiak... Urdinak, zuriak, gorriak... Ezin ziren artilezko

oinketatxoak falta. Noiz jaio ote da? Alabaren etxera arratsaldero joaten zen, berdin zuen euria edo eguzkia, hotza edo beroa. Autobusa hartu eta hor agertzen zen, gozopil, pastiza eta gailetekin. Apeta guztiak onartzen zizkion, umore aldaketa guztiak. Oso amama mainatua izango zen.

–Aiaiaiaiaia

–Zer da? Zer gertatzen zaizu?–Oso larrituta geratu zen, zerbait gertatzen ote zitzaion bere aingerutxo maitagarriari?

–Badator, badator!!

Ezin zuen sinetsi. Dena amets batean bezala gertatu zen. Konturatu gabe hain ezaguna zeukan ospitalean zegoen. Konturatu gabe zilbor heste bat moztu zuen. Konturatu gabe begi argitsudun ume bat zeukan besoetan. Bat-batean, esnatu zen. Asiertxoren irriek bere fantasiatik iratzarri zuten.

–Nor da amonaren altxorrik baliotsuena? Asier txikia da!!

Alabaren etxera lekualdatu zen. Jadanik ez zegoen minbiziaren arrastorik. Alabak emakume berri bat zirudien, helduagoa. Prejubilazioa eskatu zuen. Dena beraiengatik utzi zuen. Ezetz asmatu zein izan zen Asierren lehen hitza? Amona, noski! Beno, ez zen zehazki hura izan.

–Norena da Asiertxo?

–Amonarena!!

Honek konfusioa sortzen zuen haurtxoarengan, emakumea Amonarena deitzen zela pentsatzen baitzuen sarritan.

Etxearen aurrean zegoen parkera joaten ziren elkarrekin. Izan ere, Asierrek amonak prestatzen zizkion zereal-ahiak arratsalde osoa korrika egiten eman ondoren, irenstea gustatzen zitzaion. Amonak artilez egindako mantala gorria zabaltzen zuen belardian, bere biloba belarretako berdeaz zikin ez zedin. Bilgune sozial baten antza zeukan, egunero norbait pasa eta beraiekin esertzen zen, berdin zuen haur txikiak zituen ala ez, amonak erroskilak ematen zizkion berdin-berdin. Ilusio handia egiten zion jendeak bere sukalde-duintasunak goraipatzen zituenean. Gainera, beti bazuen zerbait goxoa esateko prest. Askotan, ikasle agobiatuei meriendatzen ematen zien, txokolate bero-beroa eta gaileta parea, betidanik izan zirelako barrita energetikoak baino elikagarriagoak. Azterketetan egindako akatsak erlatibizatzen ziren bat-batean, amonaren hitzek indargarri baten funtzioa zeukaten. Bere urterik zoriontsuenak izan ziren haiek. Jaunartzerako, janzki zuria hilabeteetan zehar gauero josiz prestatu zion, ez zuen gau bat bera ere pasatu gabe utzi. Amonari marrazketa izugarri gustatzen zitzaion eta munduko ezerengatik ez zuenez aldatuko Asierri, lo

egiten begira pasatzen zituen momentuak. Horra-hor bere oparia: loti ederra mutilaren bertsioan. Ziurrenik, artista handien lanak baino sotilagoa, baina maitasun gehiagoz sortua. Izan ere, arazo guztientzako konponbidea zeukan. Sekulakoa zen bere hitzen eragina, arazo guztiak txorakeria bat balira bezala egiten zuen, axolagabekeriak. Galdera guztientzako erantzuna beti prest, berdin zuen ze gairi buruzkoak ziren.

–Amama, zein da nire aita?

–Iraia da.

–Ez, hori ez da egia, Iraia nire ama da.

–Zuk zorte handia daukazu, ama eta aita pertsona berdinean dituzu.

Oso irekia zen, adinekoa baldin bazen ere oraindik ikasteko gogoak zituen. Edozein momentutarako irribarre bat ahoratzen zuen. Irribarre bakoitzeko begien dir-dir bat. Iragartzen zuen berotasuna, lasaitasuna... Pila maite zuen. Berdin zitzaion goizeko seietan esnatzea, bi autobus hartzea, elurraren azpian egotea, bere biloba futbitoan ikusteko. Sartzen zituen golak Munduko Txapelketako Finalekoak balira bezala ospatzen zituen. Biloba triste ikustean txokolatezko gailetak egiten zizkion. Bere ordutegia memoriaz zekien, ostegunetan 5.orduan zeukan ikasgaia, asteburuetan afaltzea nahiago zuena. Urduria zen oso, ipurtarina. Toki guztietara korrika joaten zen. Gazte askok baino energia gehiago zeukan. Asierri bere amona garaiezina iruditzen zitzaion. Bere horma zen etxeko oinarria. Zeharo gogorra zen, ez zuen ezerk ere mugitzen, asaldatzen. Guztia nahasia baldin bazegoen ere hor zegoen amona, gazteluko dorreen antzera, tinko eta gogor. Haziz joan zenean, heldutasuna ere ailegatu zitzaion. Baina hala ere, ez zuen amonari buruzko iritzia aldatu. Egunero gosaria berak prestatzen bazuen ere, azterketak zituenean denboraz larri ibili eta amonak egin behar zuen: katilu bete-betea eta ogi xigortua. Iraia aspaldi zegoen bere laborategian sartuta. Esnetan bustiz mermeladaz igurtzitako ogia irensten zuen bitartean, ikasgaiak errepasatzen zituen:

–Normandiako Lehorreratzea Bigarren Mundu Gerran Alemaniaren eta Aliatuen artean burututako borroka izan zen, 1944ko ekainaren 6an hasia. Neptuno Operazioa, erasoaren lehendabiziko fasea 1944ko ekainaren 30ean bukatutzat jo zen, eta...

–Esne bero-beroa urduri dagoen mutikoarentzako!

–Amona, baina zer diozu? Oraintxe bertan edan dut!

–Benetan? Ez esan??? Ahaztu egin zait, ba....

–Ez al zinen gogoratzen?

–Bueno, bueno...Ez da nire errua izan, e? Urduritasuna kutsatu didazu!!

Ez zen ohikoa amonak besteei bere despisteen errua botatzea, eta are harrigarriagoa zen bere biloba kuttunari botatzea. Hala ere, Asier benetan urduri zegoenez, detailetxo honi ez zion garrantzi asko jarri.

Guztiak beti bezala jarraitu zuen, baina hala eta guztiz ere, amona eta bilobaren arteko sekretua handituko zuen zerbait gertatuko zen Asierrek 16 urte zituela Sendotza egitean. Izan ere, Gure Aita abestera bere ama eta amona zeuden jarlekura joan zen:

–Gure Aita zeruetan zerana santu izan bedi zure izena etor bedi zure erreinua egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere. Emoiguzu gaur egun ontako ogia barkatu gure zorrak. Emoiguzu gaur egun ontako ogia barkatu gure zorrak...

Ez zuen nahi izan, baina hala ere, Asier bere amonarengan desbideratu zuen begirada. Hain erlijiokoa izanik, egunero Santu baten ohorez otoitz egiten zuen, bere kantu bereizgarria errezitatuz. Ahaztu al zuen amona Gure Aitaren letra, edo momentuko emozioak eragindako lapsus-a izan zen? Amonaren masailak ezin gorriago zeuden, ez zuen abesten jarraitu eta goiza bukatu arte nahiko isil egon zen, honek Iraiarengan ere susmoa areagotu zuen.

–Asier, zerbait pasatzen al zaio amonari?

–Ez dut uste ama...– Asierri oso gogorra egiten zitzaion amonak denboraldi horretan izandako ahanzmenduak aitortzea.

–Benetan? Ez al duzu nabari aldatuta?

–Aldatuta? Zer esan nahi duzu?

–Ba ez dakit, desberdina... Jokaera aldatu duela.

–Urduri egon daiteke...

–Bai hori egia da. Gainera, gai hau ez da egokia orain. Hitz egingo dugu lasai etxean. Gertaera honek Asier asko larritu zuen. Hain agerikoa zen? Bere ama, bere laborategiarekin zer ikusia ez zuen gauzei arreta jartzen ez zion Iraia, konturatu bazen,noraino ailegatu zen amonaren egoera? Ez zuen gogorik amarekin honi buruz egiteko. Ez zuen amonaren ahuleria aitortzeko gogorik.Berak lehenengo sintomak nabaritu eta isildu izana. Txiste bat gogoratu zuen, klasekoek kontatzean, barregura egin zion txiste garratzak orain:

–Aizu, seme, nola du izena batzuetan niri bisita egiten didan alemaniar kaiku hark?

–Alzheimer aita, Alzheimer du izena.

Ez zuen ezer bazkaldu, hain garestia zen jatetxeko luxuzko platerak ez zituen ezta dastatu ere egin.

–Zer gertatzen zaizu, Asier? Ez duzu ezer jan! Ez al zara ondo sentitzen?– Amonak larritasunez galdetzen zion, bere biloba eta janariaren arteko harremana obsesioz jarraitzen baitzuen.

–Ondo nago.

–Ba oso isil egon zara.

–Ez zait ezer pasatzen.

–Aizu, aurrekoa despistea izan da e? Ez al zara egongo zure amonaz larrituta?

–Ez, lasai, benetan. Dena ondo dago.

Amonak eskua estutu zion. Berriro ere begi horiek arazo guztiak uxatu zituzten, hain ziren distiratsuak.

–Orduan, ez zaizu ezer gertatzen, amona?

–Ez, ez, lasai zaitez, maitia. Eta disfrutatu zure egun honetaz.

Hain zirudien konbentzituta, indarrez ukatzen zuen arazo bat egotearen posibilitatea. Inoiz ez zitzaion Asierri pasatu ere egin burutik amonak arazo bat zuenik. Lana eman nahi ez zuelako esaten zuela hori. Oztopoa baino ez zela pentsatzen zuela. Dagoeneko nahiko lan eman zuela pentsatzen zuelako, bere alaba eta bilobari, bere etxean mantentzen zutelako.

Hala ere, Asier lasai-lasai utzi nahi zuen. Soilik bere amona ondo zegoela jakitean probatu zituelako hain goxo prestatuta zeuden jakiak. Sendotzearen ondorengo egunetan, denak beti bezala jarraitu zuen. Larunbat arratsalde batean, Asierrek bere lagunekin ondoko herri bateko festetara joatea erabaki zuen, hiruhilabetekoaren amaiera ospatzeko helburuarekin. Hiriko autobus geltokira iristean, ordea, bere planak aldatuko zituen zerbait gertatu zen.

–Asier, ez al dago ba zure mugikorra jo eta jo?

–Egia da! Mila esker.

Hain zegoen pozik bere lagunekin egin behar zuen plana burutzen ez zela konturatu ere egin.

–Bai, esan?

–Asier! Non zaude?

–Nire lagunekin, autobus geltokian. Lehen esan dizut.

Bere ama etxean ez aurkitu eta larritu zela pentsatu zuen lehendabizi, baina barruko zerbaitek amona eta sentsazio txar terminoak lotzen zituen.

–Zerbait gertatu al da?

–Ospitalera joan zaitezke?

Amonak kalean zegoela, orientazioa galdu zuen. Hirurogei urte baino gehiago presaka eta korrika zeharkatu zituen kaleetan barrena galdu zen. Bigarren pisuko Karmeni duela hogei urte itxi zuen janari-dendaren kokapena galdetu zion, honek harridura aurpegiz begiratu ostean, amonak konortea galdu eta lurrera erori zen. Bizilagunak anbulantzia deitu zuen, baita Iraia abisatu ere. Gainera, pena handiz zegoen, bere ustetan, pertsona hauek sufritu behar ez luketelako. Aski sufritu baitute bere bizitzan zehar. Gertaera honen ondorioz, Asierren amona Alzheimer gaitzaz jota zeuden gaixoen klinika batetara eraman zuten. Bilobaren jaiotzaren aurreko hilabeteetan bezala gertatu zen, baina alderantziz. Orain Asier eta Iraia ziren amonari egunero bisita egiten ziotenak. Behin, zerbait desberdina egiteko edo, argazkiak eraman zizkioten.

–Begira, hau argazkirik gustukoena izan dut beti!– Asierren amak emozioz jota bere aita zenaren erretratua seinalatzen zuen. Itsasoko gizona izanik, arrantzatzen agertzen zen, bere herrian.

–Bai, zeharo polita da.–erantzun zion amonak.–Noiz etorriko da?

–Noiz etorriko den nor?

–Bera...

–Aspaldi hil zen, ama.–Iraiaren masailetatik behera malkoak jaisten ziren, istant batean altxatu eta korrika joan zen.

–Asier, esadazu, zer gertatzen zait?

–Ez zaizu ezer gertatzen, amona. Batzuetan gauzak ahazten zaizkizula, besterik ez. Baina hori oso normala da, niri ere bai gertatzen zait askotan...

Ahaleginak egiten bazituen ere, Asierrek ez zuen amonaren gaitasuna arazoak erlatibizatzeko.

–Baina zutaz ez naiz ahazten. Zu bai gogoratzen zaitut. Ez zaitut sekulan ahaztuko.

–Nik zu ere ez amona.

–Gaixorik egon nintzen, ez? Aspaldi...

–Bai, minbiziak jota egon zinen...

–Zu izan zinen nire botikarik onena.

–Nik zainduko zaitut, amona.

Asierren bizitzako egunik tristeena izan zen bere amonaren heriotzarena. Bizitzako erritmoa gelditzen zuen zerbait izan zen. Amona bere oinarria izan zen denbora luzez, gauzak gaizki zeudenean ohetik altxatzearen bere arrazoi bakarra. Betidanik bizi izan zen amonaren ondoan, eta oso arraroa egiten zitzaion amarekin bakarri egoteak. Honek oso ordutegi gogorra zeukan lantegian, saiakuntza-lantegikoa izanik gaueko txandak egitea ere sarritan tokatzen zitzaiolako. Hala ere, bere semea hain triste eta goibel ikusi zuenez, bajaldi mugagabea hartu zuen. Sofan eseri ziren, biek hitz egiteko gai bat aukeratzeko ahaleginak egiten zituzten bitartean. Izan ere, beraien arteko isiltasuna ez zen amona eta Asierren artekoaren berdina. Amonak soinurik atera gabe hitz egiten zuelako.

–Kontrakoa bazirudien ere, asko maite nuen.–Iraiak ez zuen hori esateko asmorik, baina Asier begiratu zuen, barkamena eskatuz bezala.

–Nik ere bai.

–Badakit, eta berak ere bazekien. Baina nola jakin dezake nik ere maite nuela, maite dudala oraindik ere? Ez nion inoiz esan.

–Baina nabari zizun.

–Inoiz ez nuen besarkatu, orain berandu da.

–Inoiz ez da berandu, ama. Irakasgai hori amonari esker hartuko dugu. Berak azken momenturaino ere gugan gastatzen zuen energia.

–Ez naiz sekulan ere laborategira joango.

–Sekulan ez esan sekulan, beti badaude indarrak enplegatzeko gauzak.